

OSOGUNEKO ERAKASKERA  
1998-99ko IKASURTEA

DELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Zer bazen Arnegi-Larraburuko gainetan?
2. Zuen ustoz Oilar hura zer zen?
3. Oilar gorri harek zer nahi zuen egin?

II

Lehenengo aste baitan  
le lundia 5 octobrea 1998.

OILAR GORRIA

Arnegi-Larraburuko gainetan lehen noiz nahi entzuten zen oilar bat kukuruka ari.

Behin lau artzain, sorropilan jarririk, ari ziren musean, noiz eta ere haren kukuruku bitxiak harritu baitzituen.

Zaharrenak erran zeen lagunerri:

—Hemendik ez dira zerua eta larre hutsa baizik ageri. Ez da ez etxerik ez arbolarik Espainiako mugaraino. Jakin behar dugu haatik zer erran nahi duen.

Eta badoa, badoa kantua heldu zen alderat, oilarra ikusi beharrez. Baina gizona joanago, eta oilarraren boza urrunduago.

Ez bide zen artzain hau, oilar gorriak nahi zuena.

Bertze aldi batez, leku hortantsu, artzain zenbaitek aditu zuten oilarraren kantu idorra, eta heietarik bati begitartea zenbera bezain xuri bilakatu zitzaion. Erran zuen bakarrik:

—Adio, adixkideak. Oilar gorriak deitua niz.

Eta abiatu zen tapa-tapa kantua heldu zen alderat. Behin edo bietan nahi ukan zuen gibelerat egin: baina iduri zuen indar gorde batek (is) tuki aintzinatzerat bazeramala. Urruntxago, berriz, azken aldikotz, badoa itzuli zuen hantxetan utzi lagunen ganat, eta hauek ikusi ziozkaten begien lekuan bi sugar, ikatz gorriaren parekoak. Eta haren itxura ikusi zuten urrunduz eta ttipituz joaki, oilarraren kantua irri-karkaila batean haren aintzinean galtzen ari zelarik.

ADITZ IKASKUNTZA

31. Erran zeen 32. Badoa  
33. Bazeramala 34. Ikusi ziozkaten

31 UKAN. Conj. à dble cplt. - Indicatif Imparf.

Obj. sing! HEIERI = à EUX. Cplt Ind. Plur

- Nik nien = nienien = je le leur avais  
Zuk zinien = zinienien = vous le leur aviez  
Harek zien = zienien = il le leur avait  
Guk ginien = ginienien = nous le leur avions  
Zuek zinieten = zinienien = vous le leur aviez  
Heiek zienien = zienienien = ils le leur avaient  
Emaiten nien = je le leur donnai

32 JOAN. Indicatif

Présent		Imparfait	
Ni noa = je vais	}	nindoan = j'allais	}
Hi hooa =		hindoan =	
Zu zoatzi =	}	zinoatziin =	}
Hura doa = etc.		zoan = etc.	
Gru goatzi =	}	ginoatziin =	}
Zuek zoazte =		zinoazten =	
Heiek doatzi = ils vont		zoatziin = ils allaient	

34. UKAN Conj. à dble cplt. Indicatif. Imparfait.

Objet: pluriel HEIERI = à EUX. Cplt Indis: pluriel

- Nik nizkien = nizkizkaten = je les leur avais  
Zuk zinizkien = zinizkizkaten = vous les leur aviez  
Harek zizkien = zizkizkaten = il les leur avait  
Guk ginizkien = ginizkizkaten = nous les leur avions  
Zuek zinizkieten = zinizkizkaten = vous les leur aviez  
Heiek zizkieten = zizkizkaten = ils les leur avaient

33. EREMAN. Emporter, amener

Indicatif Imparfait: HURA = Le, la.

- Nik neraman = je l'emportais  
Heik heraman = tu l'emportais  
Zuk zineraman = vous l'emportiez  
Harek zeraman = il l'emportait  
Guk gineraman = nous l'emportions  
Zuek zineramaten = vous l'emportiez  
Heiek zeramaten = ils l'emportaient